




Bustintza 'Tar Ebaista KIRIKIÑO

Zenon Uriguen, Pasiotarra



MAÑARIA, Bizkaiko erri eder bat da, Urkiola mendi agurgarriaren oñarrarian tinko kokatua. Mañariak edesti aurreko ondareak eskaintzen daukuz San Martin leize arzuloetan orma-irudiak. Aipagarria da Mañariko arrobia eta marmol jaspe baltza lerro zurikoa. **1751an** Madrid urian Jauregi eder baten kaperan jartzeko 22 zutabe erosi ta eroan ebezan. Baña Mañariko ondasunik goragarriena bertako gizakia da ainbeste mendetan lan gogorrari ekin eta josia. Kristau fedean eliza ederra Santa Maria da erriaren zaindaria eta jaiera aundikoa. Gaurko idazlanean ospatu gura dogu Mañariko seme idazlari ospetsua: “Kirikiño”. Gizaki baikoitza da bere buruaren ta elburuaren egille eta eragillea eta Kirikiñogaz batera, egoki da, bai, ainbeste Mañaritar gizon-andre agurgarriak agurtzea. *“Zure burua da altxorra, izaten bazara baikorra”*


ABARAK



KIRIKIÑO. Xabier Gereñok diño: “Zorionekoak mundu onetatik alde eginda ondare ederra eskuratu dauskuenak. Kirikiño da guretzat eredu bikaina euskeraren alde jokatzen. Bere bidea jarraitu bear dogu. Euskeraren bearrizana daukagu Bizkaian. Euskera da gure ondarea, ondasuna eta ardatza eta iñork ez dau munduko urre guztiagatik truk egingo”

JAIOTZA TA GAZTAROA.

Kirikiño 1866an jaioa dogu. Bere gurasoak Carlos ta Juliana dira. Erriko eskolan ikasi eban lenengo ta Durangon gero. Buru argiduna da jakin-miñez jantzia. 1878an Almansa, Albazetera doa, bada, bere aitak an zeukan anai apaiza eta arreba bat ezkondu. Kirikiñok emen osotu zituan batxiller eta gañerakoak. Amazazpi urtekin Madrid'en dago fisika ta matematikan lizenziatura titulua lorturik. Beste ikasle ospetsuen artean Martzelo Torrontegi, euskalzale fiña izan eban ikasle lagun eta bien arteko ikasgaia euskera da beti. Olan euskera sugarrak biztu ta eragin dau bere izaera ta su ta ke jokatuko dau beti. 1899an Bilboratu zanean Azkue jaunak beingoan artu eban lagungarri. Euskalzale aldizkarian agertu ziran lenengo idazlanak. Idazle ez ezik irakasle bikaina da. Bizkaiko Foru Aldundiak aldi aretan euskerazko ikastola jarririk Azkue jaunaren ordezkoa izan zan 24 urtetan euskera jardunetan. Sasoi onetan maitemindu zan 1909an eta ezkondu bere loba Basili B. Ozerein ekin. Ez eben seme alabarik izan. 1913an Euskadi egunerokoa agertu zan Kirikiño idazlari aukeratua izanik. Amasei urte luzetan idatzi zituan emen idazla-



nak. Irakurleak idazgai orretara joiazan euskera eder-ongarria gozatzen. Urteak ez dabe partatzen eta Bilboko lantegia itxi eta Mañarira dator zartzaroa ondo bizitzeko asmoz. 1929an il zan gure euskerazale eredugarria, batez be, euskal idazlari guztientzat.

ABARRAK Kirikiñok izenburu onegaz argitaratu ditu iru liburu: 1) Abarrak, Bilbao 1918. 2) Bigarrego Abarrak 1930. 3) Irugarren Abarrak etb. Bilbon. 1966an, bera ilda gero, liburu mardula, Kirikiñoren lan askoz ornidua. Euskaltzaindiak be egin eban 1956an Kirikiñoren bost ipuiñezko argitalpen bat Bizkaieraz eta gipuzkeraz. Kirikiñok asko idatzi eban bere bizi osoan. Ez eban izan beste arazorik euskeraz idatzi eta euskera irakatsi. Idazkeran oso errikoia da. Gatz-ozpin biziarekin gozatzen zituan bere idazlanak. Bai, Kirikiñori erriaren euskera errikoiak sortzen dautso jakin-miñ ase-eziña. Bere elburua da: erriaren adimena argitu, biotzak euskera ederragaz ez-titu. Egoki dagokio gure esaera: “*Eten bako lanak dana gaınditzen dau*”

BUSTINTZA TA E.
(Kirikiño)